

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

365/2025 Foru Agindua, ekainaren 20ekoa. Hasierako onespina ematea Arabako Errioxako Kuadrillak Moreda Arabako udalerriko lurzoru urbanizaezinean dagoen Santa Eufemia baselizaren zati bat lehengoratzeko (begiratokia, interpretazio panelak eta aisialdi eremu txikia) sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari

Arabako Errioxako Kuadrillak Moreda Arabako udalerrian dagoen Santa Eufemia baselizaren zati bat lehengoratzeko sustatu du. Baseliza udalerrian ipar mendebaldean dago, herrigunetik kilometro erdira, 3 poligonoko 714 lurzatian. 494,65 m²-ko azalera dauka, duela gutxi erosi du kuadrillak berak, eta lurzoru urbanizaezin gisa dago sailkatuta.

Moreda Arabako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Kuadrillak baselizaren hondakinak lehengoratu eta sendotu nahi ditu, kontserbatu eta haren balioa nabarmentzeko, eta, gainera, begiratoki bat eta aisialdirako espazio txiki bat eraiki nahi ditu, eta interpretazio panelak jarri. Espazio irekiak dira eta udalerrirantz eta inguruko zelaietarantz begira daude. Gertuko ingurunetik nabarmentzen den muino txiki batean dago eremua. Azken helburua Arabako Errioxako natura, paisaia eta kultura balioak indartzea da, eta, horrela, Arabako Errioxaren eskaintza hobetzea, helmuga jasangarri, inklusibo eta irisgarri gisa.

Jarduketa egingo den lekua bertan behera utzita dago gaur egun, eta zabortezi gisa erabiltzen da unean-unean. Hala ere, udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen den bezala, lurzatia "Santa Eufemiako asentamendua eta Bakardadearen baselizaren aurriak" ustezko zona arkeologikoan dago. Beraz, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eskatzen du garbiketa lanen, hormen sendotzearen eta lur mugimenduen kontrol arkeologikoa egin dadila. Gainera, dagokion sailari jakinarazi beharko zaio obra proiektua, bai eta lan horietan zehar gerta litekeen edozein jarduketa edo aurkikuntza arkitektoniko ere. Ildo horretan, aurkeztutako dokumentazioaren artean dago Miguel Loza Uriartek (Ierbide SC enpresakoa) idatzitako kontrol arkeologikoaren proiektua, zeinaren aldeko ebazpena egin baitzuen Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak 2025eko otsailaren 4an.

Udal arkitektoak jasotzen duenez, 3 poligonoko 714 lurzatia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago Moreda Arabako arau subsidiarioetan, eta nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak eta landazabala babesteko eremu gisa kalifikatuta. Arau horien 164. artikuluan xedatutakoaren arabera, eremu horretan baimendutako eraikuntza erabileren artean daude onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak eta azpiegiturak, baina Arabako Foru Aldundiak berariaz deklaratu beharko du haien interes publikoko izaera.

Gainera, lurzatia Arabako Foru Aldundiaren landa bideen katalogoan 001-15 erreferentziarekin erregistratutako bidearen ondoan dagoenez, aldeztu aurretik Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren baimena lortu beharko da.

Eta, amaitzeko, jaso du, espazio publiko turistikoa eta aisialdikoa denez, irisgarritasunaren arloan aplikatu beharreko parametroak justifikatu beharko direla.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espediente ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1 artikuluan xedatzen duenez, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean egin daitezke "ondoren zehazten diren zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak: alde batetik, arlo jakin bateko legeriak –aplikatzekoa denak– edo lurraldearen plangintzak interes publikokotzat jo dituenak, eta bestetik, kasu jakinetan, dagokion foru aldundiak interes publikokotzat jo dituenak; bigarren hori, 20 egunez jendaurrean edukitzeko tramitea bete ondoren, ebazpen baten bidez egingo du".

Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du aurrez xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea Arabako Errioxako Kuadrillak Moreda Arabako udalerriko lurzoru urbanizaezinean dagoen Santa Eufemia baselizaren zati bat lehengoratzeko (begiratokia, interpretazio panelak eta aisialdi eremu txikia) sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeitaz egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek eskura dute espedientea, aztertu ahal izateko, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendea atenditzeko ordutegian, eta web orrian [Interes publikoaren adierazpenak-araba](#).

Hirugarrena. Izapide egintza ez-kualifikatuaren izaera duen foru agindu honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 20a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA